

donostiakultura

# ESKOLATIK ANTZOKIRA

2017/2018

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

ESKOLATIK ANTZOKIRA

Donostia Kulturaren ardatz estrategietako bat etorkizuneko publikoa sortzea da, ikusleak arte eszenikoetara erakartzea. Eszena arte bizia da, eta iruditzen zaigu harekiko lotura eta maitasuna sustatu behar dela, eta hori ezinbesteko osagarria izan behar dela pertsonen ikaste-prozesuan, ondo prestatuta egongo badira maila guztietan, baita maila pertsonalean ere. Pertsonen eta Artearen arteko lotura sendoa ezartzea da helburua, bizitza osorako izango dena. Sorkuntza artistikoa lagun, pertsonak sentiberagoak dira, beren bizitzek kalitatezko beste balio erantsi bat dute. Testua duen antzerkiaren kasuan, gainera, hizkuntzaren osagarria dago. Hala, euskara bihurtzen da protagonista nagusi.

Alderdi horretatik, Eskolatik Antzokira programa oso pozgarria da guretzat. Edizio batetik bestera programazioa haziz joan da, adin tarte guztietan, bi urtetik 18 urtera. Izan ere, behin parte hartu ondoren, ikastetxe guztiek jarraitu dute programaren hurrengo edizioetan, eta horrek erakusten digu zenbaterainoko interesa piztu duen proiektuak eta zenbateraino asmatu dugun bide horretatik joz.

Edizio honetan ere, Eskolatik Antzokira programak kalitate handiko ikuskizunak aurkeztuko dizkigu. Hasteko, 2 urtetik gorako haurrentzat pentsatuta dagoen obra bat izango dugu ikusgai, ***Kubik***, Teatro Paraíso (2012ko Haur eta Gazteentzako Arte Eszenikoen Sari Nazionala) eta Belgikako Théâtre de la Guimbarde konpainien artean sortutakoa, Small Size Big Citizens europar proiektuaren barnean, eta FETEN 2013 haurrentzako ikuskizun onenaren saria irabazi zuena. Eraikuntza joko bat ikusiko dugu, zeina emozien bidean barna egiteko baso antzeko bat bihurtuko baita, irudien museo txiki bati bidea emango dioten proiekzioez osatua, paisaia sentiberak marraztuko dituzten argiak, topaketa jostagarriak inspiratuko dituzten soinuak... mundu batek beste mundu bati atea zabalduko dio.

4 urtetik gorako haurrentzat, ZUM-ZUM Teatre konpainiak ***Zapata kaxa batean bizi zen neskatoa*** obra aurkeztuko digu, eta adiskidetasunak beldurrak gainditzen laguntzen duela ikusiko dugu. Eszenatokian, gorputz baten antzeko kutxa handi bat. Haren barnealde klaustrofobikoan, ezezagunaren aurrean sentitzen dugun beldurra tratatuko dugu. Teknologia berriek lagunduta, proiekzioek, mapping-ak eta ikusizko efektuek irudimenaren mundu magikora eramango gaituzte, pertsonen sentipenen barne-munduaz hausnartzeko.

6 urtetik gorako haurrentzat, berriz, ***Gu (Ez gaude bakarrik)*** obra izango dugu. Planeta zaindu behar dugula aldarrikatzen duen obra bat, Borobil Teatroa estiloaren araberakoa. Keinua, mugimendua, kolorea, umorea eta plastikotasuna baliatuz, itsas hondotik oihanera eramango gaituzte, irudi ederrek lagunduta: horra hor mezua, haurrentzat eta helduentzat.

8 urtetik aurrera, ***Vuelos*** izeneko ikuskizunaz gozatu ahal izango dugu, Aracaladanza konpainiaren eskutik. Jakina denez, dantza garaikidea egiten duen konpainia honek sari ugari jaso ditu azken hogei urteotan, haur eta gazteentzat sortutako obren sailean. Aracaladanza, beraz, aspaldi murgildu zen ortzian, ostadarrean, eta paradisu txikiak deskubritu zituen, eta hodeiak marraztu, eta konstelazioak margotu. Oraingo obra honetan, Leonardo da Vinci jenio irudimentsu eta iraultzailearengan inspiratuta, amets egingo dugu igeri egiten dugula zeruan, oinez ibiltzen garela uretan eta hegan egiten dugula lurrean. Ikuskizun zoragarri honetan, proiekzioek, argi-efektu ikusgarriek, atrezzo-osagarriek eta koreografien kalitateak ikusaraziko digute irudimenaren hegoek askatasuna emango digutela.

Eta 12 urtetik gorakoentzat, atsegin handiz aurkeztuko dugu ***Amour*** ikuskizuna, Marie de Jongh konpainiaren eskutik, zeinak 2017ko Max saria irabazi baitu aurten, haur eta familientzako ikuskizun onenaren sailean, bai eta FETEN 2016 saria ere iaz, ikuskizun onenaren sailean. Prentsak honela deskribatzen du obra: “Benetako antzerki-altxorra. 52 minutu, arte-zehaztasunez beteak: segundo bat bera ere ez sobera, segundo bat bera ere ez falta. Ereserki ederra baino ederragoa, maitasunari, jakinminari, elkar ulertzeari, ematen maitatzeari, egiten bizitzeari eskainia. Hitzik gabeko ikuskizun honek denok ukitzeko ahala du: haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak, guraso direnak eta ez direnak...; hitzen trabarik gabe, mugarik gabe. Sentimentua jotzen du zuzen, aratz, trikimailurik baliatu gabe, maitasun biziz.” Besteekin elkartzeko deia dugu obra hau, aurreiritzien zamaz libratzeko; hitz batean, maitasunak garaipena lortzen duen ikuskizun ederra.

Azkenik, Tanttaka Teatroak ***Soka*** ekarriko digu. Obra hau Antzerkigintza Berriak proiektuaren barnean sortu da, eta bertan parte hartu dute Bilboko Arriaga Antzokiak, Gasteizko Principal Antzokiak eta Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak, zeinak, bestalde, obra koproduzitu baitu. Aktore bakar bat, Iñaki Rikarte liluragarri bat, hainbat pertsonaia bihurtuta, istorio latz bat kontazteko: 11 urteko bere ikasle baten gorpua entrenamendu-sokatik zintzilik aurkitzen duen soinketa-irakasle batena. Igor da irakasle hori, eta, ingurukoek baztertuta, gertakizunaren errudun jotzen baitute, barne-bidaia bat egingo du, erruduntasunaren eta erantzukizunaren mugen bila. Obraren hondoan, errudunak behar dituen gizarte bati buruzko hausnarketa.
Fernando Bernuések maisuki bideratu duen obra honetan, gaurkotasun handia duen gai konplexu bat lantzen da: mobbing-a.

Irudimena, beldurrak, adiskidetasuna, ekologia, ametsak, maitasuna, drama, umorea... Askotariko gaiak eta istorioak izango ditugu, eszenaratze ikusgarriek lagunduta; programazio ezin hobea, denok disfrutatzeko.
Gustatuko zaizuelakoan!

## IKUSLEAREN PRESTAKUNTZARAKO IRADOKIZUNAK

Antzerkira datozen irakasleei aukera ematen jarraitzen dugu, beren lan pedagogikoan esperientzia horretaz balia daitezen. Horretarako, ikuslearen prestakuntzarako gida batzuk egingo dira: hautaturiko ikuskizunari buruzko gogoetak eta informazioak, eta antzerki-lana ikusi aurretik edota ondoren ikasgelan egiteko jardueren proposamenak. Horiez gainera, ikusleari emozioak adierazteko bidea emango dioten iradokizunak.
Material didaktikoak erreserba egiteko unean eskatu ahalko dira, helbide elektroniko bat emanez.

Acercar las artes escénicas a los espectadores del futuro es un eje estratégico para Donostia Kultura en la creación de nuevos públicos. Inculcar a los más jóvenes el amor por lo escénico, por las artes en vivo nos parece que es un complemento muy importante en su aprendizaje y en su formación como personas. Se creará un vínculo sólido entre ellas y ellos con el Arte que se perpetuará durante toda su vida. Si van creciendo acompañados de la creación artística, ésta les dotará en su vida de un plus de calidad y sensibilidad. En el caso del teatro de texto, se incorpora el ingrediente del idioma. El euskera se convierte así en un protagonista principal.

Eskolatik Antzokira es un programa que nos da muchas satisfacciones en este sentido. Cada año ha ido creciendo y creciendo en todas sus franjas de edades, desde los dos hasta los dieciocho años. Cada centro escolar que ha participado en una edición ha seguido manteniendo su presencia en las siguientes con lo que valoramos el acierto y el interés suscitado por el proyecto.

Para esta edición Eskolatik Antzokira se presenta un atractivo programa de calidad contrastada que arranca con un espectáculo dirigido a niñas y niños a partir de 2 años, ***Kubik*** una coproducción de Teatro Paraíso (Premio Nacional de Artes Escénicas para la infancia y juventud en 2012) y Teatro de la Guimbarde de Bélgica, realizado dentro del proyecto europeo Small Size Big Citizens y que obtuvo el premio al mejor espectáculo infantil FETEN 2013. Un juego de construcciones que se transforma en un bosque de emociones, proyecciones que dan vida a un pequeño museo de imágenes, luces que dibujan paisajes sensibles, sonidos que inspiran encuentros juguetones… un mundo da paso a otro mundo.

A partir de 4 años, ***Zapata kaxa batean bizi zen neskatoa*,** de Zum Zum Teatre, sorprendente trabajo en el que la amistad resulta ser un buen aliado para superar los miedos. Una gran caja corpórea preside el escenario. Su interior claustrofóbico nos sirve para tratar el miedo a lo desconocido. El apoyo técnico de proyecciones, mapping y efectos visuales nos transportarán al mágico mundo de la imaginación, para a la vez, reflexionar sobre el universo interior y emocional de las personas.

Para niñas y niños mayores de 6 años, ***Gu (Ez gaude bakarrik)***. Un alegato por el cuidado de nuestro planeta al estilo de Borobil Teatroa. Gesto, movimiento, color, humor y plasticidad, que nos trasladan del fondo del mar a la selva, con bellas imágenes y mensaje para pequeños y grandes.

A partir de 8 años, vamos a poder disfrutar del espectáculo ***Vuelos***, gracias a una de las compañías más premiadas en danza contemporánea para la infancia y la juventud de estos últimos 20 años, Aracaladanza. Hace ya tiempo, esta compañía buceó en el arcoíris, descubrió pequeños paraísos, trazó nubes y pintó constelaciones. Ahora, inspirado por el genio visionario y subversivo Leonardo da Vinci, regresa al sueño de nadar en el cielo, pasear en el agua y volar en la tierra. Un magnífico espectáculo en el que las proyecciones, los sofisticados efectos lumínicos, los elementos de atrezzo y la calidad de las coreografías, nos ayudarán a descubrir, que las alas de la imaginación, nos harán libres.

Para mayores de 12 años, tenemos el placer de contar con ***Amour***, de la compañía Marie de Jongh, ganador del Premio Max 2017 al Mejor espectáculo infantil o familiar y que el año pasado fue considerado el Mejor espectáculo FETEN 2016. La prensa lo describe de esta manera: "Una auténtica joya teatral. Son 52 minutos de precisión artística, sin un segundo de más, sin un segundo de menos. Un hermosísimo canto al amor, a la curiosidad, a la comprensión, al amar dando, al vivir haciendo. Un espectáculo visual, sin palabras, capaz de emocionar a niños-as, jóvenes, adultos y veteranos, solteros, padres y abuelos, sin problemas de idiomas, ni fronteras. Va directo al sentimiento y lo hace de forma limpia, sin trucos, vital y amorosamente."

Un canto al encuentro entre diferentes, una llamada a liberarnos de los prejuicios, en definitiva, un bello espectáculo en el que triunfa el amor.

Por último, Tanttaka Teatroa nos sorprenderá con su espectáculo ***Soka***, una obra nacida gracias al proyecto Antzerkigintza Berriak en el que toman parte El Teatro Arriaga de Bilbao, el Teatro Principal de Vitoria y el Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián, que es coproductor del mismo. Un único actor, un maravilloso Iñaki Rikarte, se desdobla en infinidad de personajes, para contar la historia de un profesor de gimnasia que encuentra el cuerpo de un alumno suyo de 11 años ahorcado con la cuerda de entrenamiento. Repudiado por su entorno, que lo considera culpable de lo ocurrido, Igor emprende una búsqueda en la que se dibujan los límites entre la culpa y la responsabilidad. En el transfondo también se trata sobre la necesidad de la sociedad de encontrar culpables. Un tema tan complejo y actual como es el mobbing, está tratado y dirigido magistralmente por Fernando Bernués.

Historias sobre la imaginación, los miedos, la amistad, la ecología, los sueños, el amor, el drama, el humor… junto a unas puestas en escena sorprendentes, completan una programación perfecta, para poder ser disfrutada por todos.
Esperemos que os guste!

## SUGERENCIAS PARA LA FORMACIÓN DEL ESPECTADOR

Continuamos posibilitando al profesorado que acude al teatro un aprovechamiento pedagógico de la experiencia. Para ello se elaborarán unas guías de formación del espectador que incluyen reflexiones e informaciones sobre el espectáculo seleccionado, y propuestas de actividades para realizar en el aula antes y/o después de asistir a la representación. Además de sugerencias que permitan la expresión de las emociones del espectador.
Los materiales didácticos se podrán solicitar al realizar reserva, indicando un correo electrónico.

**Teatro Paraiso**-k aurkezten du / presenta

# KUBIK

**+2**
URTE / AÑOS



**Kubik-en, bi antzezlek eraikuntza joko bat manipulatzen dute, pilatu, transformatu eta mugitu egiten dena eta esploratzeko toki berriak sortzen dituena.Mugimenduan dagoen egitura da eta bolumenek eta formek pantaila txiki mugikorrak sortuko dituzte eta bertan, irudiak agertuko dira. Antzezleak batera ohartuko dira etxeak, trenak, basoa, itsasoa, etab. sortu eta begiratzeak sortzen duen gozamenaz eta ikusle txikiak, iruditu, aurkitu eta amestu ahal den zentzumenen unibertso batean murgilduko dituzte. Kubik-en dena aldatzen da, dena eraldatzen da. Mundu batek mundu berri bati bide ematen dio.**

En Kubik dos actores manipulan un gran juego de construcciones, que se apila y se transforma, que se mueve y genera nuevos espacios a explorar. Es una arquitectura en movimiento, en la que los volúmenes y las formas crean pequeñas pantallas móviles en las que nacen las imágenes. Los actores descubren juntos el placer de crear y mirar (casas, trenes, un bosque, el mar...) sumergen a los pequeños espectadores en su universo sensorial en el que se puede imaginar, descubrir y soñar. En Kubik todo cambia, todo se transforma. Un mundo da paso a otro mundo.

---

VICTORIA EUGENIA CLUB
**Maiatza 15-18 Mayo**
**9:30–11:00**
**30 min**
**+15 min** (ongi etorria eta agurra / saludo y despedida) **/ Euskaraz**

---

Antzezleak / Reparto **Rosa A, García, Javier Fernández**
Irudiak eta bideoa / Imágenes y vídeo **Marc Cerfontaine**
Musika eta soinu efektuak / Música y efectos sonoros **Bingen Mendizabal**
Eszena espazioa / Espacio escénico **Lisa Veriselli**
Jantziak / Vestuario **Francoise Van Theinen**
Argiztapena / Iluminación **Vincent Stevens**
Argazkiak / Fotografía **Quintas Fotógrafos**
Egilea / Autoras y autor **Rosa A. García, Charlotte Fallon, Marc Cerfontaine**
Zuzendaria / Directora **Charlotte Fallon**

**ZUM-ZUM Teatre**-k aurkezten du / presenta

# ZAPATA KAXA BATEAN BIZI ZEN NESKATOA

+4 URTE / AÑOS



**ANTZOKI ZAHARRA**
**TEATRO PRINCIPAL**
**Maiatza 29 Mayo – Ekaina 1 Junio**
**9:30–11:00**
**50 min / Euskaraz**

Egilea / Autor **Ricardo Alcántara**
Dramaturgia **Ramon Molins**
Abestiak / Canciones **Begonya Ferrer, Ramon Molins**
Musika konposizioa / Composición musical **Antoni Tolmos**
Musika ekoizpena / Producción musical **Harmònic**
Espazio eszenikoaren diseinua / Diseño espacio escénico **Carles Pijuan**
Ekoizpen eszenografikoa / Producción escenográfica **La Baldufa**
Ikus-entzunezko ekoizpena, 3D, 2D eta mapping-a / Producción audiovisual, 3D, 2D y mapping **Marc Vidal, Jordi Siscart, Migue S. Monfort**
Jantziak / Diseño y confección de vestuario **ZUM-ZUM, Pepa Piquer**
Diseinu teknikoa / Diseño técnico **Sergio Sisques - Stagelab**
Argien diseinua / Diseño de luces **Miki Arbizu**
Musika zuzendaritza / Dirección musical **Antoni Tolmos**
Ekoizpen exekutiboa / Producción ejecutiva **Eva Lega**
Zuzendaria / Director **Ramon Molins**
Aktorea / Actriz **Begonya Ferrer**
Ekoizpena / Producción **ZUM-ZUM TEATRE**

**Julia zapata kaxa batean bizi den neskatoa da. Pixka bat aspertzen da, baina, aldi berean, oso seguru sentitzen da bere zapata kaxaren barruan. Egun batean, arkatz magiko bat aurkitzen du, ate bat marrazten du, eta mundua ikustera ateratzen da. Gero, tximeleta bat marrazten du,eta lore bat... halako batean pilota batekin topo egiten duen arte. Neskatoa eta pilota elkarren adiskide egiten dira, elkarrekin jolasten dute eta oso ondo pasatzen dute. Denborarekin, zapata kaxa beren ametsak gordetzeko txikiegia dela konturatzen dira, eta handik joatea erabakitzen dute.**
**Istorio honetan protagonistak zapata kaxa baten barruan bizitzeak ematen duen erosotasunean bilatu du babesa. Nahiago du horrela bizi, libreki jokatzeak dakartzan arriskuei aurre egitea baino; babeslekutik joatea ordea, modu askean jokatzea dela ulertzen dugu. Adiskidetasuna beldurraren aurkako konponbide ona da.**

Julia es una niña que vive en una caja de zapatos. Allí se aburre un poco, pero a la vez se siente muy segura. Un día encuentra un lápiz mágico, dibuja una puerta y sale a ver el mundo. Después dibuja una mariposa, una flor... Hasta que un día tropieza con una pelota y se hacen amigas. Las dos juegan juntas y se lo pasan muy bien, hasta que la caja resulta demasiado pequeña para alojar sus sueños y deciden marchar.
En esta historia encontramos a la protagonista instalada en la comodidad de vivir dentro de una caja de zapatos. Prefiere vivir de esta manera que asumir los riesgos que implican un comportamiento libre, implícito en el hecho de abandonar su refugio. La amistad es un buen remedio contra el miedo.

**Borobil Teatroa**-k aurkezten du / presenta

# GU (Ez gaude bakarrik)




+6
URTE / AÑOS



GAZTESZENA (EGIA)
Otsaila 27 Febrero – Martxoa 2 Marzo
9:30–11:00
50 min / Euskaraz

**Mundua kolorez eta animaliez beteta dagoen leku eder bat da. Gizakia naturaren parte bezala bere ingurunea errespetatu eta zainduko du, baina momentu batean tximiniak eraikitzen hasiko da eta tximiniek dirua emango dute. Diruarekin dena lortu daitekeela sinistuko du. Bain lortuko duen gauza bakarra, mundua kolorerik gabe uztea izango da.**

La tierra es un lugar maravilloso lleno de color, poblada por diferentes especies entre las que se encuentra el ser humano que cuida y respeta su entorno. Pero un día empieza a construir chimeneas. Y esas chimeneas le dan dinero. Y cree que con el dinero puede conseguirlo todo. Sin embargo, lo único que consigue es dejar el mundo sin color.

Aktoreak / Reparto **Asier Sota, Julen Vega, Imanol Espinazo, Hannah Berry**
Eszenografia / Escenografía **Josean Álvarez, Peio Villalba**
Atrezzoa / Atrezzo **Linda Krüeger, Ingrid Krüeger, Josemi Dorronsoro, Josean Álvarez, Peio Villalba**
Jantzien diseinua / Diseño de vestuario **Nagore Dendariarena**
Jostunak / Sastras **Paquita García, Nconcept store, Angelita denda**
Kartela / Cartel **Ekhi Vegas, Iñaki Martinez**
Argiak / Luces **Paco Iglesias**
Jatorrizko musika / Música original **Ekhi Vegas**
Zuzendaria / Director **Anartz Zuazua**

**Aracaladanza**-k aurkezten du / presenta

# VUELOS

+8
URTE / AÑOS



**GAZTESZENA (EGIA)**
**Apirila 10-13 Abril**
**9:30–11:00**
**50 min / Euskaraz / Dantza**

Ideia eta zuzendaritza / Idea y dirección **Enrique Cabrera**
Koreografia / Coreografía **Aracaladanza**
Dantzariak / Intérpretes **Carolina Arija Gallardo, Jimena Trueba Toca, Jonatan de Luis Mazagatos, Jorge Brea Salgueiro, Raquel de la Plaza Húmera**
Koreografian laguntzaileak / Asistentes en coreografía **Jimena Trueba Toca, Raquel de la Plaza Húmera**
Jatorrizko musikaren sorkuntza / Composición música original **Luis Miguel Cobo**
Eszenografiaren diseinua eta jantziak / Diseño de escenografía y vestuario **Elisa Sanz (AAPEE)**
Argiztapenaren diseinua / Diseño de iluminación **Pedro Yagüe (AAI)**
Eszenako bideoaren diseinua / Diseño de vídeo escena **Álvaro Luna (AAI)**
Atrezzoaren diseinua eta makinak / Diseño de atrezo y maquinarias **Ricardo Vergne, Elisa Sanz**
Atrezzoaren gauzatzea eta makinak / Realización de atrezo y maquinarias **Ricardo Vergne**
Jantzigintza / Realización vestuario **Ángeles Marín**
Jantzien pintura eta bukatzea / Acabado y pintura de vestuario **María Calderón**
Eszenografia / Realización escenografía **Sfumato, Mambo Decorados**
Argazkiak / Fotografía **Pedro Arnay**
Argi, soinu eta bideo teknikaria / Técnico de luces, sonido y vídeo **Lalo Gallego Blanco**
Makineria teknikaria / Técnico de maquinaria **Yolanda Esteban Díaz, Vanesa Camín García**
Ekoizpena / Producción **Arantza Izaguirre Fradua**
Ekoizpenaren eta komunikazioaren diseinua / Diseño de producción y prensa **Javier Torres Ochandiano**
Banaketa nazio mailan / Distribución nacional **Alberto Muyo**
Nazioarteko banaketa / Distribución internacional **Ana Sala – Ikebanah Artes Escénicas**

**Leonardo da Vincik bere ahal osoz desiratu zuen hegan egitearen utopia, eta buru-belarri jardun zuen hura egia bihurtzeko. Eta orain, haren ekarpen ukaezina gure inspirazio bihurtu da; haren ametsak gure sustraiak elikatzen ditu, eta haren obra biribilak gure lana ongarritzen du.**

**Duela denboraldi bat, Aracalandaza ostadarrean murgildu zen, paradisutxoak aurkitu zituen, hodeiak marraztu eta konstelazioak margotu zituen. Orain, Leonardoren jenio irudikor eta iraultzailean inspiraturik, berriro gatoz ametsera: zeruan igeri egitera, uretan paseatzera, lurrean hegan egitera.**

Leonardo da Vinci deseó la utopía de volar con todas sus fuerzas y empeñó su trabajo para hacerla realidad. Y ahora, su innegable legado se convierte en nuestra inspiración; su visionario sueño, alimenta nuestras raíces y su contundente obra, abona nuestro trabajo.

Hace ya tiempo, Aracaladanza buceó en el arcoíris, descubrió pequeños paraísos, trazó nubes y pintó constelaciones. Ahora, inspirados por el genio visionario y subversivo de Leonardo, regresamos al sueño de nadar en el cielo, pasear en el agua y volar en la tierra.

**Marie de Jongh**-ek aurkezten du / presenta

# AMOUR



**+12**
**URTE / AÑOS**

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**
**Maiatza 22-25 Mayo**
**9:30–11:00**
**60 min / Keinu antzerkia, Teatro gestual**



Zuzendaria / Director **Jokin Oregi**
Zuzendaritza artistikoa, eszenografia eta jantzigintza / Dirección artística, escenografía y vestuario **Elisa Sanz**
Aktoreak / Reparto **Ana Meabe, Anduriña Zurutuza, Ana Martinez, Javier Renobales, Pablo Ibarluzea**
Argiak / Iluminación **Xabier Lozano**
Soinu espazioa / Espacio sonoro **Pascal Gaigne**
Maskarak eta osagarriak / Máscaras y accesorios **Javier Tirado**
Jantziak / Vestuario **Nati Ortiz de Zarate, Begoña Ballesteros**
Ilustrazioa / Ilustración **Ane Pikaza**
Sonorizazioa / Sonorización **Edu Zalio**
Teknikoa giran / Técnico en gira **Javier García Kandela**
Argazkiak / Fotografía **Guillermo Casas**
Ekoizpena / Producción **Tartean Teatroa**

**Maitasunak beti ematen digu aukera bat. Haur batzuk jolasean, dena hasten den herrialdean. Mundua aurkitzen saiatzen dira beren unibertsoa eraldatuz. Nagusiak imitatzen dituzte, ausardiaz eta lotutasunik gabe. Maitatzen ausartzen dira, horren benetako esanahia zein den jakin gabe. Haserretu ere, laster haserretzen dira, gorroto hitza beren poltsikoetan aurkitu baino lehen. Badakite zer diren usainak, azala, ferekak, abandonua, babesa, desira. Ez dakite denbora zer den. Eta, bat-batean, hirurogei urte baino gehiago igaro dira.**
**Orain, zahartuta, hitz asko ateratzen dituzte poltsikoetatik, orbela bezala erortzen diren hitzak. Badakite zer diren usainak, azala, ferekak, abandonua, babesa, desira. Eta, harritzekoa bada ere, haserretu ere laster haserretzen dira, maitatzeak benetan zer esan nahi duen dakitenean. Badakite zer den denbora. Maitasunak beti ematen digula aukera bat: horixe ez dakite.**

El amor siempre nos da una oportunidad. Unos niños juegan en el país donde todo empieza. Se afanan en descubrir el mundo transformando su universo. Imitan a los mayores, con audacia y desenfado. Se atreven a amar sin saber cuál es su verdadero significado. No dudan en enemistarse antes, incluso, de encontrar la palabra odio en sus bolsillos. Saben de olores, piel, caricia, abandono, refugio, deseo. No saben del tiempo. Y de pronto, han transcurrido más de sesenta años.
Ahora, envejecidos, sacan de los bolsillos multitud de palabras que caen como hojas marchitas. Saben de olores, piel, caricia, abandono, refugio, deseo. Y, paradójicamente, no dudan en enemistarse cuando ya conocen el verdadero significado de amar. Saben del tiempo. Lo que no saben es que el amor siempre nos da una oportunidad.

**TanttakaTeatroa**-k eta **Victoria Eugenia Antzokia**-k aurkezten dute / presentan

# SOKA

**ANTZOKI ZAHARRA – TEATRO PRINCIPAL**
**Otsaila 13-16 Febrero**
**10:00**
**55 min / Euskaraz**



Egilea / Autor **Mikel Gurrea**
Zuzendaritza eta eszenografia / Dirección y escenografía **Fernando Bernués**
Interpretea / Intérprete **Iñaki Rikarte**
Argiztapena, soinu banda eta proiekzioak / Iluminación, banda sonora, proyecciones **Acrónica Producciones**
Jantziak / Vestuario **Ana Turrillas**
Irudiak / Imágenes **Mikel Gurrea**
Koordinazio teknikoa / Coordinación técnica **Edi Naudó**
Lan talde teknikoa / Equipo técnico **Edi Naudó, Dani Bernués, Txema González**
Diseinu grafikoa / Diseño gráfico **Javi Alonso**
Argazkiak / Fotografía **Aitor Matauco**
Administrazioa / Administración **Maite Gorrotxategi**
Ekoizpen exekutiboa / Producción ejecutiva **Ane Antoñanzas**

**Soinketako irakasle batek 11 urteko mutiko baten gorpua aurkitzen du, gimnasioko sokatik urkatuta. Gertatutakoaren erruduna balitz bezala, bere inguruak baztertuta, Igorrek errua eta erantzukizunaren arteko mugak marrazten diren bilaketa bati ekingo dio.**

Un profesor de gimnasia encuentra el cuerpo de un alumno suyo de 11 años ahorcado con la cuerda de entrenamiento. Repudiado por su entorno, que lo considera culpable de lo ocurrido, Igor emprende una búsqueda en la que se dibujan los límites entre la culpa y la responsabilidad.



# ARGIBIDEA
# INFORMACIÓN

2017/2018 denboraldiko programazioari buruzko informazioa bidaliko diegu ikastetxeei.
Ondoren, edozein ikastetxek, hala Irakasleen Klaustroarekin, nola Guraso Elkartearekin, argibide gehiago jasotzeko bilera burutu nahi izanez gero, telefonoz eskatu ahal izango du.

**IRAKASKUNTZAKO MATERIALA**
Material didaktikoak erreserba egiterakoan eskatu ahal izango dira, posta elektroniko bat adieraziz.

**SALNEURRIA**
Sarrera bakoitza **4,50** eurokoa da. Prezio hau kostu erreala baino txikiagoa da, erakunde antolatzaileak eskaintzen duen diru laguntzari esker.
Irakasleek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

**ERRESERBA EGUTEGIA**
Erreserbak egiteko antolatzaileekin posta elektronikoz jarri beharko da harremanetan, ikastetxearen datuak, erreserbatu nahi diren lekuen kopurua, arduradunaren izena eta hautatutako ikuskizuna adieraziz.

Erreserbatzeko epea: **urriaren 2tik 11ra (9:30eatik 13:30eara).**

Antolakuntzak ikastetxeari baieztatuko dio erreserba emailez. Eserlekuak, eskaera ordenaren arabera banatuko dira, hauek agortu arte.

**SARREREN ORDAINKETA**
- Ikastetxeek, emanaldia hasi baino **zazpi egun lehenago, urrian** egindako sarreren erreserba erabatekoaren berrespena egin behar dute.
- Ez ohizko salbuespenak ezik, antolakuntzak ez du aldaketarik eta diru itzulpenik onartuko.
- Emanaldia pasatuta, antolatzaileek eskolara bidaliko dute faktura.
- **Ordainketa**, fakturaren kontra egingo da, **ez aurretik!**
- Behin faktura jasota, zenbatekoaren % 100a sartu beharko dute Kutxako edozein bulegotan.
- Ordainketak egiteko honako datu hauek adierazi beharko dira: Ikuskizunaren izena(laburtua) + Ikastetxearen Izena (laburtua) + Faktura zenbakia.

Adibidez: Zapata kaixa – La Salle -70
- Dirua sartu eta gero, diru-sarreraren ziurtagiria bidali beharko da emailez antzerkira@gmail.com helbidera.
- Ikuskizun baterako baino gehiagorako sarrerak hartu nahi dituen ikastetxeak, ahal duen neurrian, diru-sarrera bereiziak burutu beharko ditu ikuskizun bakoitzeko.
- Kontu zenbakia: KUTXABANK 2095 5381 12 1061524996

HARREMANETARAKO: NAGORE MARTINEZ
Telf: 653 756 480. E-mail: antzerkira@gmail.com

Se enviará información a los centros escolares para presentarles la programación de la temporada 2017/2018.
Si algún colegio desea realizar una reunión informativa posterior, tanto con el Claustro de Profesores, como con la Asociación de Padres podrá solicitarlo telefónicamente.

**MATERIAL PEDAGÓGICO**
Los materiales didácticos se podrán solicitar al realizar la reserva, indicando un correo electrónico.

**PRECIO**
El coste de la entrada, para cada espectador es de **4,50** euros. Este precio está subvencionado por la entidad organizadora, ya que su coste real es superior al precio establecido.
La entrada para el profesorado es gratuita.

**RESERVAS**
Para efectuar las reservas se deberá contactar a través de correo electrónico con la organización, señalando los datos del centro, número de plazas reservadas, persona responsable y espectáculo elegido.

Plazo de reservas: **del 2 al 11 de octubre (de 9:30 a 13:30 horas).**

La organización confirmará por e-mail la asistencia a los espectáculos. Las plazas se adjudicarán por estricto orden de recepción, hasta agotar las mismas.

**PAGO DE ENTRADAS**
- Los centros deberán confirmar la reserva realizada en octubre, **siete días** antes de la función.
- La organización no admitirá cambios ni hará devoluciones, salvo excepciones.
- Una vez terminada la función, la organización enviará la factura al colegio.
- **El pago** se realizará contra factura, **nunca antes**.
- Una vez recibida la factura, se efectuará el ingreso del 100 % en cualquiera de las oficinas de Kutxa.
- Para el ingreso de los pagos se deberá hacer constar los siguientes datos: Nombre del espectáculo (abreviado) + Nombre del Centro (abreviado) + Nº de factura.

Ejemplo: Zapata kaixa – La Salle – 70
- Una vez realizado el ingreso se debe enviar el resguardo del mismo por e-mail a antzerkira@gmail.com.
- Un colegio que desee adquirir entradas para varios espectáculos, deberá, si fuera posible, realizar un ingreso diferenciado para cada uno de ellos.
- Nº de cuenta: KUTXABANK 2095 5381 12 1061524996

CONTACTO: NAGORE MARTINEZ
Telf: 653 756 480. E-mail: antzerkira@gmail.com

# ESKOLATIK ANTZOKIRA

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**
Argentinar Errepublika, 2
20004 Donostia / San Sebastián

**ANTZOKI ZAHARRA**
**TEATRO PRINCIPAL**
Kale Nagusia, 1
20003 Donostia / San Sebastián

**GAZTESZENA - Egia**
Baztan kalea, 21
20012 Donostia / San Sebastián


eszena

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

RÉGION
AQUITAINE

**800 ale** ejemplares 1,29 € **ale bakoitza** unidad

ytantos